

KUTSATU ELKARTASUNA ETA BUKATU GOSEAREKIN

2021.eko otsailaren 14an, Manos Unidas erakundearen jardunaldi nazionalan, ospakizunean hainbat beharrezan aldeko otoitzak egitea proposatzen dogu (Erromako Meza-liburu barria, 33. zenb.: gosea jasaten dabenen alde, 1.047. or.). Eta irakurgaiak, urtean zeharreko (B) VI. domekari dagokiozanak.



SARRERAKO OHARRA

Ondo etorriak! Geure burua besteen alde emonez bizi egin daigun guregaitik emoten dan Jainkoaren Maitasuna ospatuko dogu.

Horretarako, lagungarri izango dogu Manos Unidas erakundearen 62. kanpaina, "guztion onaren aldeko ardurakidetasunera" deitzen gaituana. Irakurgaietako lepradunaren kasuan gertatzen dan lez, gaur egun be, askori Jainkoak danon onerako oparitu euskuna ez jakola heltzen jakinda.

Emon deioguzan eskerrak Jainkoari, bedeinkapen guztien egileari, bere ondasun guztiak gure artean banatzen ditualako eta beste batzuekin erdibanatzeko gauza izan gaitezala eskatzen deuskulako.

BILKETA-OTOITZA

(Erromako Meza-liburu barria, 1.047 or.).



OHARRA IRAKURGAIEI

Dana ona dala eta Jainkoaren aintzarako balio dauala gogoratzen deusku Jainkoaren Hitzak, eta, Jesusen sasoiko lepradunak lez, gizarteko baztertuak ez doguzala ahaztu behar. Onartu daigun hesiak apurtzeko, zauriak sendatzeko eta danei bere atzetik jarraitzeak dakarren pozaz gozatzeko dei egiten deuskun Jesusen barri ona.

JAINKOAREN HERRAREN OTOITZA



Ospatzailea: Gizon eta emakume guztiak salbatu daitezala eta egia ezagutu daiela gura dau Jainkoak. Egin daigun otoitz konfiantzaz beteta herri guztien onaren alde.

- Eleizaren alde; goratu daijala Jauna danei, eta batez be ongizatearen gizartek kontuan hartzen ez dabenei, arreta eskainiz.
Egin daigun otoitz.
- Agintarien alde; ezinbesteko laguntzak eskaini daiezan danok bizimodu duina izan daigun.
Egin daigun otoitz.
- Ondasunen erabilera bidegabearen ondorioak jasan eta euren herrietatik ihes egin behar dabenen alde; Jainkoak danontzat jarri ebazan ondasunez jabetzeko aukera izan daien.
Egin daigun otoitz.
- Manos Unidas erakundearen alde; Jainkoak lagunduta frutu ugari emon daian sentiberatasuna biztuz eta mundu solidario eta anaikorragoa eginez.
Egin daigun otoitz.
- Gu guztion alde; geure mugez jabetuta, ondasunak arduraz eta Jainkoaren aintzarako erabili daiguzan.
Egin daigun otoitz.

Ospatzailea: Jainko Aita, maitasunez zaintzen dozuz izaki guztiak; maitasunez eta eraginkortasunez jardun daigula duintasunez bizitzeko baliabiderik ez daukien anai-arrebei laguntzeko.

OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Gaur batu daiten dirua Manos Unidas erakundeak sustatzen dauan gosearen aurkako kanpainarako izango da. Ekarpen horregaz gosearen aurkako burrukan bat egingo dogu, gaurko kanpainan eskatzen jakun lez.

Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegaitik.

OPARIEN AURKEZPENA

Lurraren frutu eta Jainkoaren doe diran eta jaunaren Gorputz eta Odol bihurtuko diran Ogi eta Ardaoarekin batera, batu dogun dirua aurkeztuko dogu ondasunen erabilera arduragabearen eraginei aurre egiteko laguntza lez, Manos Unidas erakundearen kartela edota egitasmoa, kaltetuen aldeko sentiberatasuna bizten eta eurei laguntzen jarduten dabenak irudikatzeko, zeruaren zeinu aurreratua dan altara apainduko daben loreak eta gaixoen aldeko laguntza irudikatuko daben botikak.

OPARIEN GAINEKO OTOITZA

(Erromako Meza-liburu barria, 1.047 or.)



JAUNARTZEAREN OSTEKO OTOITZA

(Erromako Meza-liburu barria, 1.047 or.)



Borondatezko barau eguna
2021. eko otsailaren 12a, barikua
Manos Unidas erakundearen kanpaina
2021.eko otsailaren 14a, domeka

OHARRAK HOMILIARAKO

Jesusen sasoian, lepra nekez sendatzen zan; gaixoak bakartu egiten ziran kutsatzeak ekiditeko eta horrek bazterketa baino ez ekarren. Gaur egun, 114 herrialdetan dagoz lepradunak, baina, ezintasunak eragin daikezan arren, erraz sendatzen dan gaixotasuna da.

Jesus errukitu egin zan deiaren aurrean, eskua luzatu eta sendatu egin eban. Manos Unidas dei egiten deusku eta ezin gara besoa besoaren gainean geratu. Aita Santuak Madagaskarren azaldu eban: "ingurura begiratu, zenbat gizon eta emakume, gazte eta ume dagoan sufritzen eta behar-beharrezkoa be ez daualarik! Hau ez dago Jainkoaren egitasmoaren barruan".

Eta haxe proposatu eban:

▲ **Begirada altxatu:** bestea, edozein izanda be bere familia, kultura eta gizarte jatorria, anai-arreba lez ikusteko, honen bizitzaz eta egoeraz hunkitzeko gauza ez danak ezin dau nire ikasle izan".

▲ **Ez manipulatu ebanjelioa erredukzionismo tristeekin,** eta historia senidetasunean eta alkartasunean eraiki lurraren eta bere doeen errespetuan, esplotazino guztiak gaindituz; alkarrizketa, lankidetzaz, alkarren ezagutza bizi.

▲ **Indibidualismoari uko egin:** esker oneko oroimena berreskuratu eta gure bizitza eta gaitasunak Jainkoaren eta makina bat esku isilen artean jositako opariaren frutu dirala autortu.

▲ Holan eskerrak emon deikeoguz Jainkoari egiten dogun guztian.

AZKEN OHARRA: KONPROMISORAKO DEIA

Guztion onaren aldeko zerbitzuren batean lagundu eta alkartasuna, pertsonal eta ekonomikoa, gauzatzeko bideak aztertu, Manos Unidas erakundeak lez, behartsuenen duintasunaren defentsan esku-hartzeko.



Kristau heziketarako lagungarri gehiago, hemen:
manosunidas.org/sensibilización/en las parroquias